




Illuntzar  
Nabarniz

# PR -BI 174


Urdaibaiko begiratokia.  
Mirador de Urdaibai.

Km 10,5	420m	3h 30'
------------	------	--------



- 1
- 2
- 2
- 3

Mendi-ibilbidea Illuntzarko larreetan eta Nabarnizko auzoetan zehar; oraindik jatorrizko baserri itxurari eusten zaio bertan.



Recorrido montaño por los pastos de Illuntzar y los barrios de Nabarniz, donde el caserío aún conserva su esencia.



Ikazurietan



Illuntzarren



Nabarniz

Illuntzar mendiak talaia baten itxura du Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren gainean. Mendi-larreetatik, paisaiaren kontrastea ikus daiteke, paduren hondotik hasi eta Ereño eta Nabarniz arteko haran garaietaraino eta gure arroa mugatzen duten mendietaraino.

Mendi-ibilbide hau Nabarnizko Elexalde herri-gunetik abiatzen da, baso-pista batetik Illuntzar tontorrera igotzeko. Bertan, haizeak gogor jotzen du, eta ganadua lasai asko bazkatzen da. Bere mantu berdearen azpian leize ugari ezkututzen dira, Ineritze adibidez, 330 metroko sakonekoa.

Ibilbidea larreetatik iparralderantz jaisten da, eta han Airoko pagadi ederra eta baseri zaharraren hondakinak gurutzatuko ditugu. Pista zabal batek Kurtziaganako bidegurutzera eramango gaitu eta handik Ikazurietara jaitsiko gara galtzada zaharretik.

Ikazurietan, Uribarri eta Elexalde artean landa izaerako auzo txiki hauen edertasunaz gozatzeko aukera izango dugu.

El monte Illuntzar se alza como una atalaya sobre la Reserva de la Biosfera de Urdaibai. Desde sus pastos montañosos se observa el contraste de su paisaje, desde el fondo de las marismas hasta los valles altos entre Ereño y Nabarniz y los montes que limitan nuestra cuenca.

De carácter montaño, este sendero parte del núcleo Elexalde de Nabarniz para ascender por una pista forestal a la cima del Illuntzar, donde el viento sopla con fuerza y el ganado pasta ajeno a nuestra presencia. Bajo su manto verde se esconden numerosas simas, como la de Ineritze, con 330 m de profundidad.

El sendero descende por los pastos hacia su cara norte, donde cruzaremos el bello hayedo de Airo y las ruinas del viejo caserío. Una amplia pista nos acerca al cruce de Kurtziagana, desde donde descenderemos a Ikazurietan por la vieja calzada.

Entre Ikazurietan, Uribarri y Elexalde podremos disfrutar de la belleza de estos pequeños núcleos rurales, donde la vida discurre en torno al caserío.



## eta gero... y después...

Ez galdu Nabarnizko babarrun eta menestra famatuak dastatzeko aukera. Egin erreserba eta gozatu. Nabarnizek frontoia eta haurrentzako jolasguneak ere baditu.

Zatoz Arrolako Oppidum-era, Bizkaiko Burdin Aroko herrixarik garrantzitsu eta ederrenetako batera. Arrolagunera ere joan zaitezke, Loiola-Arratzuko herrigunean dagoen Interpretazio Zentrora. Deitu aurretik.



No pierdas la oportunidad de degustar las famosas alubias y menestra de Nabarniz. Reserva una mesa y disfruta.

Nabarniz también cuenta con frontón y zonas de juegos infantiles.

Acércate al Oppidum de Arrola, uno de los poblados de la Edad de Hierro más importantes de Bizkaia. También puedes acercarte a Arrolagune, su Centro de interpretación, ubicado en el núcleo de Loiola-Arratzu. Llama previamente.

